

OSOGUNEKO ERAKASKERA  
1994-95.

① ELHEKETA: ASTE HUNTAKO SOLAS GAIA.

1. Orai lastean norh in baxten du.
2. Zombatetan berdinu dira pilotariak.
3. Orduan nola joan dira trebesak eta gero norh nabaratu du?

② Piarresen Igandea  
Biharramunean 6

Eta *Axkona* gaizoa, luze luzea, Jainkoak gorapenean sorrarazi zuetakotz, kantaz ari da edo hobeki musikan, bere boz xaramelarekin.<sup>36</sup> Axkonaren aldean, bere zango luzeak bi plegu eginik, pilotari zonbeiten jauntziak<sup>37</sup> sorbaldatik dilindan, kokoriko kurturik, xotx bat eskuan, Martzel ari da pilotarien pontuen kirrimarratzen, han, lurrean, errabot bazterrean. Leon, *Artziringo merak* bi botoila arno rebota eskuineko gordagirat ekharririk, pilotariak xorta bat edan dute orai, eta, hatsaren hartzeko, ixil ixila eman dira paretari kontra, batzu xutik, bertzeak kokoriko. Piarres xutitzen da lehenik; eta bere lagunari hitz bat erranik, ezker badoa gibel hartarut, eskuetara guti aski thu eginik.

“—Hogoita lau, eta hogoita bat, sakkak hogoita lau, hogoita bat erreferak!”

Frantzoa eta Aguxtin aintzinean dire beraz, Frantzoak bere sake dindila atheraturik, eta ezker, jendectarat, asko pilota sarturik.

Bainan, Piarres orai pulliki airerat edo aintzinaire plantaturik, hor, begiak hesteko artean, bardintzen dire.

“—Ados, jaunak, ados. Hogoita launa bardin!” Ez da gehiago trebesik, bardinean baizik; eta berehala, trebesik ez da batere, gainetik jokatzailak iziturik eta ixildurik. Bainan gero, huna berriz oihuak. Piarresen alde orai guziak:

—Hogoita hamar eta hogoita sei!!!

—Hogoi hamarri, hiru hogoi hamabortzi!”

Eta ostixoan Frantzoarentzat bezala, orai haren kontra ari dire, urratu moltsa saretu beharrez. Berantegi gaur goiti!!!

—Hogoita hamalau eta hogoita bederatzi! A la noblia, a, a, ...”

Piarresek joan du partida, eta haurrak jada errabotera xinhaurriak bezala jalirik, jauzika plekan ari diren denboran, pilotariak eta jendeak, oro badoazi orai, plazari behera, murmurur erasian.<sup>38</sup> Sakelan ximiko badute han zonbeitek. Bainan, bertze aldi batez irabaziko dute hek ere; eta, hirri hormatu batean, diote: *kito* egin dutela gaur ere, aintzinetik gogoz irabazia zuten partida ondolik gero galdurik !...

③ A.DITZ IKASKUNTZA.

31 ezker badoa 32. Joan (balidantza)

32 zuetakotz 34 diote.

31. JOAN. Indicatif.

<u>Present</u>	<u>Imparfait</u>
Ni noa (je vais)	nindoan
Hi hooa	hindoan
Zu zoatzji	zinoatzjin
Hura doa	zoan
Gu goatzji	ginoatzjin
Zuek zoatzte	zinoatzten
Hek doatzji etc.	zoatzjin

32. JOAN. Conditionnel

Ni nindoake (j'irais)	
Hi hindoake	
Zu zinoazke	
Hura loake	
Gu ginoazke	
Zuek zinoazkete	
Hek loazke etc.	

33 UKAN. Indicatif Imparfait

Nik nuen je l'avais	nituen-jelua.
Hik luen tu l'avais	lituen
Zuk zinen vous l'aviez	zinituen
Harek zuen	zetuen
Guk ginuen	ginituen
Zuek zintuen	zinituzten
Heiek zuten etc.	zetuzten